

Kredoa. 5 <sup>a</sup> Garde. <sup>Prongal</sup> ~~Urriainko~~ red. 1.

1. Sinesten dud Tangoiko atan Aita,
2. gaira <sup>e</sup> guzinet <sup>etan</sup> poder dienaren, zeu z
3. riaren, lurraren Kriaxale, eta Je z
4. sukristo aren Seme Gore Jein ba z.
5. kocha, zoin ixan <sup>ein</sup> baizen konzebitruk <sup>ayri</sup>
6. Espiritu Saintu Jeinaren obraz,
7. sortu Ama Berjina ganik, pade z
8. zitu Ponzio Pilatusen <sup>ea</sup> potrioren
9. pean, kruzifikatu, <sup>urik</sup> il eta onrzi,
10. sanuchi <sup>uszi</sup> zela Simbuetra, kantik
11. irurgarnen <sup>rr</sup> egunian <sup>e</sup> resuzitatu
12. zela ilen artetik, igan zela zeuriz z
13. tra, kan dagola saseririk bere z
14. Aita Poderoso <sup>a</sup> aren alteskoyeko altian, <sup>u</sup>
15. kantik siren <sup>n</sup> dela Juizioko egu z
16. nian ilen eta bixien zurgetra.
17. Kala sine <sup>sti</sup> chetan diezu Espiritu
18. Saintuak, Eliza <sup>a</sup> Ama Saintuak <sup>a</sup> ka z
19. tolikaren, Saintuen <sup>a</sup> Komun., <sup>nionian</sup> bekati z
20. oaren parkamentuan, <sup>io</sup> aragiaren z

**ERRONKARIERA:** *Auñamendiko uskara.*  
*Ekialdeko nafarrera/USKARA*

o 20 minutu inguru euskalki bakoitzeko

o 30 minutuko galdera tartea

o 15 minutuko euskalki ikastaroa (esalditxo batzuk, agurrak, etab.)

## **Non eta zergatik galdu zen.**

Erronkariera Euskal Herrian ekialderago zegoen euskalki berezia dugu. Nafarroako ipar-ekialdean kokaturik, Aragoi, Biarno eta Zuberoaren mugakidea zela.

Azken "uskaldunak", Fidela Bernat Aracué's jatorrizko hiztun uztarroztarrak, berarekin eraman zuen.

Dirudenez, XIX. mendearen bukaeran Erronkaribar osoan erabiltzen zuten, hegoaldean dagoen Burgi herriak uskaldun gutxien zeukana izanik.

<b>Herria</b>	<b>Biztanleak</b>	<b>Euskaldunak</b>
Bidankoze	437	350
Garde	463	350
Burgi	671	87
Urzainki	285	260
Erronkari	498	450
Uztarroze	638	570
Izaba	973	880

XX. mendearen hasieran erronkarierak eman zituen atzera pausoak nabarmenak ziren, erronkariarrak hizkuntza galtzen ari ziren. Hau 1904ko irailaren 1eko *Guía eclesiástica y estado del personal del obispado de Pamplona* erakusten digu<sup>1</sup>.

<b>Herria</b>	<b>Biztanleak</b>	<b>Euskaldunak</b>
Bidankoze	506	16
Garde	506	0
Burgi	704	0
Urzainki	320	13
Erronkari	529	21
Uztarroze	774	390
Izaba	1011	180

1 Morfología del verbo auxiliar roncalés, Pedro de Yrizar, Euskaltzaindia.

Hainbat arrazoik eragin zuten hizkuntzaren galera.

- Bere kokapen geografikoa arrazoietako bat izan zen.

- Bernardo Estornes Lasaren ustez, Bigarren Karlistada kolpe ikaragarria izan zen. Erronkariarrak liberalak ziren batez ere. Karlistak agertu zirenean askok emigratu behar izan zuten Frantziara eta Ameriketara. Beraien artean Izabako Labairu apeza euskaltzalea omen zegoen. Hizkuntzaren bultzatzaile bai elizan, bai kalean ere.

- Karlistadak bukatuak, 1876. urtean Foruak indargabetu zituzten eta honekin batera mugen babesaren areagotu zuten. Karabinariak eta gendarmeez edo "hedexuriek" muga babesteko ardura izan zuten. Haranetik kanpoko jendea zen eta honek uskara eta gaztelaren arteko hizkuntza-gatazka sortu zuen.

- Izabako Antonia Anaut Gardek eta Uztarrozeko León Cebriánek ziotenez, uskararen galera herriko familia aberatsek eragin zuten, gutxiesten baitzuten. Bestalde, Ubaldo Hualde izabarraren ustez, Estatuaren zentralismoa haraneko hizkuntzaren galeraren eragile bakarra izan zen, gaztelaren erabilera eskolatan inposatu zuten. Neska-mutilak maisuek zigortuak ziren, bai ikasgelan eta bai ikasgelatik kanpo<sup>2</sup>.

- Erronkariarren ogibideak ere bere eragina izan zuen galera edo erabileran.

**Artzaintza:** Transhumantziak erdal herrietaraino eramaten zituen gizonezkoak. Erriberaraino edo Aragoiko lurretara jeisten ziren beren artaldeekin eta han, hilabete luzez, negua han ematen baitzuten, nafar-erdaraz hitz egin beharra zeukaten. Udaberriean Erronkaribarrera itzultzen ziren eta "bortiuetan" zuberotarrekin partekatzen zituzten alaguneak, uskaraz omen ziharduten. Esan beharra dago, Doroteo de Miguel uztarroztarra azken gizonezko uskaldun izan omen zela. Artzaina zela ez omen zuen transhumantziarik egiten eta azken unera arte, uskara mantendu zuen, nahiz eta desitxuratu izan.

**Zurgintza:** Zurgintzak haranetik kanpoko langileria erakarri zuen, batez ere andaluziarrak, Estornestarren hitzetan. Almadiazainek edo almadieroek enborrak zeramatzaten ibaian barrena. Hauek ere, erdal herrietaraino. Artzainek baino denboraldia laburragoa ematen zuten.

**Espartingintza:** Emakumezkoak ziharduten espartingintza. Mauleko lantegietara zihoazela, han euskara zerabilten eta hau onuragarri izan zitzaion "uskarari". Emakume haiek ekarpen ederra egin zioten zubereratik harturiko mailegari esker. Esan beharra dago azken uskaldunak emakumezkoak zirela bereziki. Haraneko jendeak esan zidanez, euskaraz zekiten emakumeek hitz egiteari uzten zioten haur eta gizonen aurrean. Dirudenez, emakumeei loturiko hizkuntza bilakatu zen azken urteetan.

---

2 Juan San Martín, *"Fragmentos de canciones del uskara roncalés"*, Cuadernos Etnología Etnografía Navarra 22, 1976, 17-18. Orrialdeak.

## Ikertzaileak eta sailkapena.

- **Louis-Lucien Bonaparte** (Bleschamp, 1813 – Worcestershire, 1891). Napoleon I.aren iloba, euskararen ikertzaile handienetarikoa bat dugu. Bost aldiz etorri zen Euskal Herrira, 1856 eta 1869 urteen artean. Bonaparte printzeak, lehenik zubereraren azpieuskalki gisa sailkatu zuen, baina 1872an argitaratu zuen *Études sur les trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal* liburuan zioenez, euskararen bederatzigarren euskalkia izan zitekeen. Arturo Campioni 1880ko urriaren 12an igorri zion eskutitzean erronkariara ia euskalki independentea zela jakinarazi zion:

*"vous vous rendez compte de la singularité du dialecte roncalais, qui est presque un dialecte indépendant".*

Printzeak egin zuen sailkapena. Euskalki bat eta hiru azpieuskalki eta zazpi aldaera.

Azpieuskalkia	Hizkerak
Bidankoze	<i>Bidankoze, Garde, Burgi</i>
Urzainki	<i>Urzainki, Erronkari</i>
Uztarroze	<i>Uztarroze, Izaba</i>

Bonapartek Bidankozeko azpieuskalkia nagusizat hartu zuen, azpieuskalki honen aditz-joko guztiak bildu baitzituen. Kontutan izan behar dugu haranean izan zituen bi laguntzaileak Bidankozeko Pedro Prudencio Hualde Mayo apezka eta Mariano Saturnino Mendigatxa Ornat laboraria izan zirela.

Hualde Mayok *San Mateoren Ebanjelioa* eta doktrina bat “uskaratu” zituen Bonapartek aginduta.

Beste laguntzailea, Mendigatxa, alegia, birritan elkartu zen berarekin. Lehena 1866. urtean, printzeak Euskal Herritik egiten zuen hirugarren bidaiak Erronkariraino eraman zuen. Bigarrena 1869. urtean, Donibane Lohitzunen.

Marianok, gizon eskolagabekoa izan arren, ondo asko zekien euskaraz eta jakin bazekien ere idazten eta euskaratzen. Mendigatxak berak uskaratu zituen *Berrogeita hamargarren salmoa* eta *Orreaga*. Bidankozeko azken uskaldunetakoa dugu.

- **Resurrección María Azkue** (Lekeitio, 1864 - Bilbao, 1951). Azkuek ere Mendigatxa ezagutu zuen. Berarekin aritu zen postatrukez 1902 eta 1916 bitartean. Denboraldi honetan Mendigatxak oso informazio garrantzitsua eman zion erronkariari buruz. Informazio guzti hau Azkuek argitaratu zuen bere *Particularidades del dialecto roncalés* lan ikusgarrian. Azkuek beti onartu zuen erronkariara beste euskalki bat zela.

- **Rudolf Trebisch** (Viena, 1876 - Graz, 1918): Vienako euskal grabaketak (1913): Uztarrozeko Victoriano Marco Pérez grabatu zuen magnetofoi batez.

- **Juan Jose Belokik, Jesus Elosegik, Pilar Sansinenea Elosegik** eta **Luis Mitxelenak** zenbait informazio kontraesale bildu eta gero, ez zekiten Erronkaribarrean euskaraz mintzatzen zenentz.

Hala ere, Antonio Labaienen ahotik, Uztarrozeko elizatik ateratzen ari ziren bi pertsona euskaraz hitz egiten entzun zituelako berria heldu zitzaien. Hau 1952ko udan gertatu zen. Urte berean, irailean, eta prestatu zuten magnetofoi batekin, haranerantz abiatu ziren hiltzeko zorian zegoen euskalkiaren informazioa biltzearen. Bi sesio antolatu zituzten: lehena Izaban, 1952ko irailaren 28ko igande arratsaldean eta bigarrena Uztarrozen, 29an goizean.

Informatzaileak Simona Anaut, Pastora Anaut eta Eugenia Baraze izabarrak eta Pilar Garde, Francisco Karrika Jauregi eta honen emazte Carmen Drona Artieda uztarroztarrak izan ziren. Txistek, pasadizoak, atsotitzak, kantak, otoitzak eta Izaba eta Uztarrozeko hizkerari zegozkien bi hiztegitxo bildu ziren<sup>3</sup>.

- **Kandido Izagirre** (Urretxu, 1913 - Arantzazu, 1967). Mitxelenak eta bere taldeak eginiko lana irakurri ondoren, Erronkariko euskararen ezagueran murgiltzea erabaki zuen. Lan honetan Aita Ignacio Ormaetxebarriak eta Aita Julián Alustizak lagunduko zioten. Uztarrozeko apeza zen Benito Urtasunen etxean ostatu zen. Ikerketa hauen emaitza beraren *Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk* bi lanak izan ziren, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País argitaratuak, 1959 eta 1961ean. Lanetan Uztarroze eta Izabako mintzairari dagozkion zenbait testu eta hiztegi labur batzuk aurki ditzakegu.

- **Marcelino Garde Villafranca** (Zarrakastelu, 1925 - Ripodas, 1990). Apeztu eta gero Uztarrozera bidali zuten 1952. urtean eta, bertan bi urte eman ondoren, Gardera joan zen 1954an. Haranean zegoela material lexikografikoa bildu eta erronkariarrek euskara ikas zezaten saiatu zen. Ikastalde bat antolatu zuen. Erronkariko umeei eskeinitako *Erronkari txoriñoa* poesiaren egilea dugu. *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistan erronkarierari buruzko gaiak argitaratzen zituen. 1967 eta 1968an grabatu zuen Balbina Ederra Bortiri uztarroztarra. Grabaketa hauek Jose Estornes Lasarentzat egin zituen, berarekin parte hartu baitzuen bere *Erronkariko uskara* liburuan.

- **Juan San Martín** (Eibar, 1922 - Hondarribia, 2005). Kanta erronkariarrak biltzeari ekin zion, urte luzez. Berak zioenez *las indagaciones que hice fueron para mí como un último intento de robar a la muerte trozos de poesía popular de esa variedad dialectal del euskara o uskara...*<sup>4</sup>

- Izabako **Estornes Lasa** anaiek oso lan neketsua egin zuten euskalki erronkariarra berreskuratu nahian, Erronkariko egoera sozio-kulturalaren gainean idatzi zituzten liburu ugariak erakusten digutenez. Hauen artean, Joserren Erronkariko uskara eskuliburua eta Bernardoren Erronkariko uskararen hiztegia ditugu. Bernardok lehen saria lortu zuen Zangozako Lore-jokoetan 1967an erronkarieraz idatzi zuen Erronkariko iror gizon poesiari esker.

- **Koldo Artola** (Donostia, 1938). Ikerketa ugari burutu zuen erronkarieraren gainean. Ikerketa hauek, berak dioskunez<sup>5</sup>, Bernardo eta Mariano Estornes Lasaren *Recuerdo de Erronkari, Salazar y Navascués* liburuaren irakurketak sortarazi zizkion.

---

3 Juan José Beloki, Jesús Elozegi, Pilar Sansinenea de Elozegi eta Luis Mitxelena, *“Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”*, Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, IX. urtea, 4. koaderno.

4 Juan San Martín, *“Fragmentos de canciones del uskara roncalés”*, Cuadernos Etnología Etnografía Navarra 22, 1976, pag. 6.

5 Koldo Artola, *“Erronkariko uskararen azken hatsak... eino ¡re!”*, Fontes Linguae Vasconum 25 zkia, 1977ko urtarrila-apirila.

Uskaldun gutxi batzuk ezagutu zituen Izaban eta Uztarrozen. Hegoaldeko herrietan; hau da, Bidankoze, Garde, Burgi, Urzainki eta Erronkarin, hitzak zekizkien baten bat baino ez zuen aurkitu. Ezagutu zituenak, besteak beste, Izabako Antonia Anaut eta Uztarrozeko Doroteo de Miguel eta Josefa Karrika izan ziren. Kontatu nahi zioten guztia grabatu zien magnetofoi batez: kantak, pasadizoak, ume-jolasak, etab.

Antonia Anaut ebakiera garbiko emakumea omen zen, Koldok berak dioenez. Antonia Anautekin izandako solasaldiak jarraian aipatzen diren data eta lekuetan zertu ziren: 1971ko abuztuaren 12an, 1973ko urriaren 13an eta 1975eko Aste Santuan, Izabako Katalin Garde etxean; eta 1975eko uda amaieran Antoniaren alaba baten etxean.

Dirudienez, Doroteok, Antonia Anautek ez bezala, bazerabilen oso euskara desitxuratua, urte luzetan inorekin euskaraz hitz egiteke egon zen eta. Akatsak nabariak ziren aditzak jokatzear. Koldo Artolaren hitzetan, Josefa Karrikari dagokionez, adinekoa eta hitz gutxiko emakumea izanik, nahikoa zaila zen zehaztea norainoko zekien.

Uztarrozeko Xarde etxean eginiko solasaldiak ondorengo egunetan izan ziren: 1971ko abuztuaren 12an, 1975eko martxoaren 29an eta 1975eko irailaren 8an.

1975. urtean Iruñean ezagutu ahal izan zuen Erronkariko azken uskalduna izango zena, Fidela Bernat. Hamar urte lehenago Nafarroako hiriburura joan zen bizitzera bere familiarekin. Fidela balio handiko berriemailea izan zuen, euskara eta haraneko bizitzari buruzko informazio ugari eta interesgarria luzatu baitzion. 1975 eta 1978 urteetan berarekin izan zituen solasaldiak grabatu zituen. Fidelaren euskara, bere lehengusu Doroteorena bezala, desitxuraturik zegoen. Ez zerabiltzan ondo *nor-nori*, *nor-nork* (3. pertsona izan ezik) eta *nor-nori-nork* adizkiak. Era berean, Fidela Bernatek, hikako formak direla eta, nokakoak zerabiltzan bakarrik.

## Uskarazko testuak

- **Burgiko sorginei epaiketa:** 1569. urtean, Erronkaribarreko hegoaldean dagoen Burgi herriko ustezko sorgin batzuen aurkako epaiketa hasi zen. Prozesu guztia 1etik 20ra arte zenbakituriko 21 dokumentutan, 15 bisa barne, bildurik dago Iruñako Artzapezpikutegian.

Florencio Idoatek *Un proceso de brujería en Burgui*<sup>6</sup> izenburuaz argitaratu zuen. Bere antzinatasunak interes eta balore handiko dokumentu bilakatzen du. Gaur egun erronkarieraz idatziriko testurik zaharrenak baitauzka:

Burgui, 8 de septiembre de 1569

Aurrac, arnega eçaçuey jangueicoaz eta andre dona Mariaz eta sayntu eta saynta guçuey eta andre dona Mariac eta santa Annac eztuey aurric.

(Haurrak, uko egin iezaiezue Jainkoari eta Andra Mariri eta saindu eta saina guztiei eta Andra Marik eta Santa Anak ez dute haurrik)

<sup>6</sup> Florencio Idoate, *“Un proceso de brujería en Burgui”*, Cuadernos Etnología Etnografía Navarra, VII. Urtea-20. Zk., 1975, 225-276 orrialdeak.

Catalina Bront, 7 urte.

(Proz., 82-87 orr.)

Burgui, 12 de septiembre de 1569

Aurrac, arnega eçaçuey jangueycoaz eta andre dona Mariaz eta saintu eta santa guçuez eta aytaz eta amaz eta ascaçi guçuez.

(Haurrak, uko egin iezaiezue Jainkoari eta Andra Mariri eta saindu eta saina guztiei eta gurasoei eta familia osoari)

María Escániz, 10 urte.

(Proz., 92-94 orr.)

Pamplona, 19 de septiembre de 1569

Arnega eçaçuey Janguoycoaz eta andre donamariaz, eta aren semeaz, eta sancta Anna eta aytaz eta ascaçy guçuez.

(Uko egin iezaiezue Jainkoari eta Andra Mariri, eta bere semeari, eta saina Anari eta aitari eta familia osoari)

Ana Portaz, mayor en días.

(Proz., 78-79 orr.)

- **San Mateoren Ebanjelioa eta beste testu erlijioso batzuk:** Pedro Prudencio Hualde Mayo (1829-79) Bidankozeko apezka zenak itzulia Bonapartek aginduta.

- **Julian Gayarrereren eskutitza:** Gayarre (1844-90) tenoreak bere izeba Juanari igorri zion Bartzelonatik, 1884ko abenduaren 19an.

- **Mariano Mendigatzaren eskutitzak:** Mariano Mendigatxa (1832-1918) bidankoztarrak Azkueri bidali zizkion uskarazko eskutitzak (1902/1916).

## BIBLIOGRAFIA

### **Angos Peña, Alberto**

2005, Erronkaria I - Gramatika, HIRIA.

2005, Erronkaria II - Esaldiak, HIRIA.

2008, Erronkaria III - Testuak, HIRIA.

2020, Mariano Mendigatxa & Resurrección M<sup>a</sup> Azkue, Correspondencia-Eskutitzak, 1902-1916. Landarte-Nafarroako Gobernu-Gobierno de Navarra. Pérez Artutx, Gotzon eta Angos Peña, Alberto.

### **Aranzadi Zientzi Elkartea**

1983, "Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa I", EAEL, Donostia-San Sebastián.

1990, "Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa II", EAEL, Donostia-San Sebastián.

2014, Ziorditik Uztarrozeraino. Munibe gehigarria 34. Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa oinarri. Aranzadi Zientzia Elkartea. Koldo Artola.

### **Aranzadi, Telesforo eta Estornes Lasa, Bernardo**

1930, "Nombres de plantas en euskera (de Izaba)", Revista Internacional de Estudios Vascos XXI.

### **Artola, Koldo**

1977, "Erronkariko uskararen azken hatsak, einóre! (I)", Fontes Linguae Vasconum 25.

1980, "Erronkariko uskararen azken hatsak, orainóre! (II)", Fontes Linguae Vasconum 34.

1983, Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa. Lehen atala, Lehen zatia. MUNIBEren eranskina. Aranzadi Zientzia Elkartea.

1990, Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa. Lehen atala, Bigarren zatia. MUNIBEren eranskina. Aranzadi Zientzia Elkartea.

1991, "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (I)", Fontes Linguae Vasconum 58.

2000, "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (II)", Fontes Linguae Vasconum 85.

2014, Ziorditik Uztarrozeraino. Munibe gehigarria 34. Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa oinarri. Aranzadi Zientzia Elkartea.

### **Aznarez Alkat, Josune**

2020, Uskararen eleak / Las palabras del euskara, Pamiela.

### **Azkue, Resurrección Maria**

1931, Particularidades del dialecto roncalés, Bilbao.

1969, "Diccionario Vasco-Español-Francés", Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

### **Beloqui, Juan José; Elozegui, Jesús; Sansinea de Elozegui, Pilar; Michelena, Luis**

1953, "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés", Real Sociedad Vascongada de amigos del País IX.

### **Bonaparte, Luis Luciano**

1858, "Canticum Trium Puerorum en XI dialectos vascos", Londres.

1858, "Canticum Trium Puerorum en VII dialectos vascos", Londres.

1868, "Le Canticum des tríos jeunes gens dans la fournaise, dans les dialectes basques d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal", Londres.

1869, "Le petit catéchisme espagnol du P. Astete, traduit en tríos dialectes basques: 1. Aezcoan. 2. Salazarais. 3. Roncalais; par don

Pedro Hualde, curé de Vidangoz", Londres.

1869, "Le verbe basque en tableaux", Londres.



1872, “Études sur les trois dialectes basques des vallées d’Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tel qu’ils sont parlées à Aribe, à Jaurrieta et à Vidangoz”, Londres.

**Estornes Lasa, Bernardo**

1980, “Cuentos roncaleses, poemas y otras cosas navarras”, Donostia-San Sebastián, Editorial Auñamendi.

1983, “El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearn”, Piarres Lafitteri omenaldia, Bilbao.

1984, “Mendigatxak Azkueri kartak, 1902-1916”, Fontes Linguae Vasconum, 16.

1997, “Diccionario español-uskara roncalés / Erronkariko uskararen hiztegia”, Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra.

**Estornes Lasa, José**

1968, “Erronkariko uskara”, Zarautz, Editorial Auñamendi.

1982, “Jesu-Kristo Gore Jainaren Ebangelio Saindua. Pedro Prudencio Hualde Mayo. Oraik ortografiak eta anotazioak batzuk”, Fontes Linguae Vasconum, 39.

1982, “Erronkariko uskaraz elestak. Fraseología roncalesa”, Fontes Linguae Vasconum, 40.

**Estornes Lasa, Mariano**

1963, “Los últimos euskaldunes de Izaba (Roncal)”, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.

**Etxebarria, José María**

1913ko Vienako euskal grabaketak, III. Erronkaria, IKER-6.

1984, “Vienako euskal grabaketak”, Euskera XXIX.

**Fagoaga, Isidoro**

1974 (1959), “Retablo Vasco”, Gran Enciclopedia Vasca.

**Gabilondo, Joseba**

1983, “Erronkaria, Euskal dialektologiaren hastapenak”, Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea-Pamplona.

1987, “Erronkaria, Euskal dialektologiaren hastapenak”, Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea-Pamplona.

**Idoate, Francisco**

1975, “Un proceso de brujería en Burgui”, Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra 20.

**Iribar, Juan José; Iribar, Itziar; Pagola, Rosa Miren**

1997, “Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak. Erronkaria”, Deustuko Unibertsitatea-Deiker.

**Izaguirre, Cándido**

1959, “Erronkariko euskal-ondakin batzuk”, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País XV.

**Larrañaga Muñoz, Xabier**

1997, “Mendigachak Azkueri igorri eskutitzak: Aditza”, Fontes Linguae Vasconum, 75.

**López de Arana Arrieta, Marcelo Miguel / Inaxio**

1998, “Rudolf Trebitsch: Euskal hizkuntzaren eta musikaren grabazioak (1913)”, Fontes Linguae Vasconum, 77.

**López Mugartza, Juan Karlos**

1993, “Izabako lekuizenak”, Fontes Linguae Vasconum, 25.

2000, “Dialektologia gaiak, Erronkarieraren deskribapen, toponimiaren bidez”, Koldo Zuazo (arg.), Arabako Foru Aldundia-Diputación Foral de Alava.

### **Mendigacha Ornat, Mariano**

1878, “Orreaga”, Gran Enciclopedia Vasca.

### **Michelena, Luis**

1953, “El último roncalés”, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País IX.

1954, “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”, Via Domitia I.

1958, “Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte”, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País XIV.

1985, “Fonética Histórica Vasca”. Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa. Tesis Doctoral de 1959.

### **Pérez Artutx, Gotzon**

2020, Mariano Mendigatxa & Resurrección M<sup>a</sup> Azkue, Correspondencia-Eskutitzak, 1902-1916. Landarte-Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra. Pérez Artutx, Gotzon eta Angos Peña, Alberto.

### **Pérez Goyena, Antonio**

1944, “Contribución de Navarra y de sus hijos a la Historia de la Sagrada Escritura”, Imprenta Jesús García, Iruñea-Pamplona.

### **Rudolf Trebitsch**

1913. Euskal grabaketak. Fonoteca de Euskaltzaindia.

### **San Martín, Juan**

1966, “Fragmentos de canciones populares ronclesas”, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País III y IV.

### **San Zabalza, Félix**

1997, Viejos usos, palabras y expresiones de Burgui. Newbook Ediciones.

### **Satrustegi, José María**

1968, “Naparroko bizitza. Erronkariko uskara”, Príncipe de Viana 26.

### **Yrizar, Pedro de**

1992, “Morfología del verbo auxiliar roncalés (estudio dialectológico)”, Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca.

## ERRONKARIERA, EUSKALKIA ETA AZPIEUSKALKIA.

- **Sailkapena:** Bonapartek egin zuen sailkapena: Euskalki bat, hiru azpieuskalki eta zazpi aldaera.

Bidankoze: Bidankoze, Burgi eta Garde.

Urzainki: Urzainki eta Erronkari.

Uztarroze: Uztarroze eta Izaba.

- **Tratamenduak:** Bonaparte printzeak hiru tratamendu bereizi zituen: hika, zuka eta berorika.

Hau kontutan harturik, José Estornés Lasak honako hau dio bere **Erronkariko uskaraz elestak. Fraseología roncalés.** (F.L.V. 40 – 466 orr.):

*“Siguiendo al Príncipe Luciano Bonaparte, debemos decir que se distinguen tres tratamientos: de usted, de tú y de vos.*

*I= Indeterminado. Hablando a personas de ambos sexos. De usted (zuketza).*

*M= Masculino familiar. Hablando a hombres, compañeros, amigos. De tú (yiketza).*

*M= Femenino familiar. Hablando a mujeres, compañeras, amigas. De tú (yiketza).*

*R= Respetuoso. Hablando a personas, hombres y mujeres con deferencia, abuelos, etc. De vos (zuketza).*

*Por último se habla también en tercera persona aunque me parece que no es un tratamiento sino una forma de hablar”.*

Baina Mariano Mendigatxak R.M. Azkueri 1905eko urtarrilaren 21ean bidali zion bere hogeita hirugarren eskutitza irakurriko bagenu José Estornés Lasa oker zegoela pentsa genezake:

*“Badaki gore uskarak iror tratamentu diola. Dra: duketza, zuketza eta yiketza. Duketzaz mintzatan gra zarrer eta errespetoko gente guziuareki. Zuketaz mintzatan gra bapana bere adinetakoetarik as, aik eta sor berrietraino; zuketaz manifestatan digu alkar digula amoriua, maitetazuna eta adexkidetazuna andiago ezik gainaratekueki; eta yiketaz, berze guziueki.*

*Yiketzan berextan digu gizakia emaztekitik, letra konez K, eta emaztekoa gizakitik, kontaz N”.*

(Badaki gure euskarak hiru tratamendu dituela. Duketza, zuketza eta yiketza direla. Duketzaz hitz egiten diegu zaharrei eta errespetuko jendeari. Zuketaz hitz egiten dugu norberaren adinkideekin eta jaioberriekin; zuketaz adierazten dugu alkar maite dugula, besteekin baino maitasun eta adiskidetasun handiagoa dugula; eta yiketaz, beste guztiekin. Yiketzean bereizten ditugu gizonezkoa eta emakumezkoa, letra honekin “K”, eta emakumezkoa gizonezkoarekin, honekin “N”).

- **Berezitasunak:** Berezitasunen artean honako hauek aipa ditzakegu

- Bokalismoa: Erronkarierak euskarak dituen ohiko bost bokal ahokariez gain (a, e, i, o, u), beste bost bokal sudurkari zituen (â, ê, î, ô, û).

A+A: IA; Etorri al da?/Xin daa?: Xin dia?

E+A: IA, EA.

I+A: IA.

O+A: UA, OA.

U+A: IA, IUA. Salbuespenak: Su: sua,

- Erakusleen eta erakusleetatik eratorrien hasierako belare gorra (K): Kau, kori, kura, kemen, kor, kan, kola, kala... Salbuespena izenordainekin gertatzen da. Ori (berori), oriek, orren, onen...
- Azentuaren garrantzia: áita/aitá, bórta/bortá, alába/alabá...
- Sudurkaritasuna: XX. mendearen hasieran Bidankozen Uztarrozen baino erabiliagoa omen zen. Bi bokalen arteko, kontsonante baten aurreko edo bukaerako n-aren galerak sortarazten zuen: ardaû(n), âtze (ahantzi), aîguru (ainguru)... Balio fonologiokoa zuen: Su, sua / sû, súa (suhi); atze (gibel) / âtze (ahantzi)...
- Asimilazioa ohikoa zen: zubi/zibi/zubu, gaztelu/gaztulu, iturri/uturri, eki/iki...
- Sinkopa: Bokal-erortzea, hau da sinkopa, gertatzen zen bi kontsonanteren artean: dra (dira), bronte (boronte, kopeta), ekustra (ikustera), bigarna (bigarrena)...
- Dardarkaria: Batzuetan hitz hasieran agertzen zan, batez ere zenbait mailegutan: Reino, reina, rezibitu, raza, rigore, rumore. Baina: Erreino, erreina, errezibitu...

Dardarkaria dela eta: **Ibarra/Ibaxa**. Antonia Anautek gaizki ahoskatzen zituen erreak. Ibox, belax, ux...

- Frikari belarea: Zenbait mailegu berritan: Juizio, justo, juzgatu, jenerazione... Salbuespenak: Jein, bai jina, Jangeiko.
- Z: Gaztelaniaren antzekoa: Zra, baraze, zu, ez, izan, mazte, guziuak...
- Solezismoa: Gazteleraren eraginak sortarazia. -tiari/-t(z)eari. Ekustiari, xatiari, xoateari, egitiari, iratzartiari...

**Etse:** nora... etsera: neure, geure etxera / etsiara: etxe horretara, edonoren etxera.

## **ADITZ-PARTIZIPIOA EDO EKINTZA BURUTUA, EKINTZA EZ-BURUTUA ETA GEROALDIA**

### **-tu:**

Mendekatu, mendekatan, mendekaten.

Izaguntu, izaguntan, izagunten. (Ezagutu)

Zerbutxatu, zerbutxatan, zerbutxaten.

Eltu, eltan, elten. (Heldu).

### **-i:**

Egotxi, egoxtan, egotxen. (Egotzi, jaurti)

Ekusi, ekustan, ekusen.

Izari, izartan, izaren. (Ipini, jarri, ezarri)

Erabili, erabiltan, erabilen. (Ibili).

### **-n:**

Erkin, erkitan, erkinen. (Atera)

Xoan, xoaitan, xoanen.

Xin, xitan, xinen. (Etorri)

Emon, emoitan, emonen. (Eman)

-truk, -rik... galtruk, emonik, zerbutxatruk, egotxirik...

# ARIKETAK

## Entzumenak:

1. Rudolf Trebischt.
2. Fidela Bernat.
3. Erronkariko gazta, iragarkia.

## Irakurketak:

1. Gayarren eskutitza.
2. Mendigatxaren eskutitza.

## Rudolf Trebitschen Vienako Euskal Grabaketak (1913)

2240

Erronkáríko Bállia dagó Espáñan Nabárrako probinziáren, Aragókoaren eta Fránziaren ártian eta bállia konpóntan déi zázpi ídik, déitan bèidrá Uztarróze, Izába, Urzáinki, Erronkári, Gárde, Bidánkoze eta Búrgi. Ténpra gúzian eta bétik ízan da bálle káur ánitx fáma óntako eta ónratruk múndu gúzutik, eta erronkariárrak ízan dra bétik ánitx ázkar, ánitx súfritruk, eta ánitx baliénte, gerrára xuáitan zrénian, eta korrengátik Nabárrako Errégek égin duéi ténpra gúziez ánitx mertxéde eta émon duéi ánitx pribiléjio zerbútxu ándi égitan zéinen pakátako. Eta àndienétarik ízan zen emoitiá derétxo xáistako bére aziendéki eta salduéki Bardeára déus pakátu báge. Ténpra gúziez érkin da bálle kóntarik ánitx gízon ándi eta ánitx merítotako gísa gúziez, báia bi andiéndak ízan dra eta óbro fáma émon déinek bálliari Gárdeko séme bat, ízena bèizién Pedro de Bereterra eta erdáraz déitan zéin “El Conde Pedro Navarro”; zéren bére tenprán ízan beizén Espáñako Erregé Katòlikoén Jenerálik obéna eta àndienétarik; eta ánitx fáma eráman zién Itáliako gerrétan eta gúzien búrian españólak burúzagi égin zrénian Áfrikan Argélez eta Túnezez. Eta béstia ízan zen Erronkáríko séme bat déitan bèizén Julián Gaiarre eta ízan zen bére tenprán kantóre ándi bat, eta múndu gúzian erráitan déi ízan déla tenórerik obén ízan déna eta izagúntu déna ténpra gúziez múndu kóntan. Gáxoa il zen áski gázte bestelá ánitx fabóreziten zién Bálle kóni, ánitx (...) bèizén bére érriaren eta bálle kóntako. Bálle káur ánitx izagúntu da ere...

Batua:

*Erronkariko Harana Espainan dago Nafarroa eta Aragoi probintzien eta Frantziaren artean eta harana zazpi herri osatzen dute: Uztarrotze, Izaba, Urzainki, Erronkari, Garde, Bidankoze eta Burgi direlarik. Haran hau beti izan da ospe handikoa eta onestua mundu osoan, eta erronkariarrak beti izan dira oso azkarrak, oso jakorrrak eta oso ausartak gerrara zihoazenean, eta horregatik Nafarroako Erregeek mesede asko eta pribilegio asko eman dizkiete egiten zizkieten zerbitzuak ordaintzearen. Eta handienetarikoa izan zen Bardeara, ezer ordaindu gabe, aziendekin eta artaldekin jaisteko eskubidea edo baimena ematea. Denboraren zehar gizon handi asko eta meritu mota guztietako gizonak irten dira haran honetatik, baina bi handienak eta haranari ospe gehiago eman diotenak Gardeko seme bat, Pedro de Bereterra zuela izena eta erdaraz “El Conde Pedro Navarro” zeritzona; zeren bere garaian Españako Errege Katolikoen Generalik onena eta handienetarikoa izan baitzen; eta ospe handia eraman zuen Italiako gerretan eta batez ere espainiarrek Afrikan Argel eta Túnez menperatu zituztenean. Eta bestea Erronkariko seme bat izan zen, Julian Gaiarre eta bere garaian izan zen abeslari handi bat, eta mundu osoan mundu honetan eta denboraren zehar ezagutu den tenorerik onena izan dela diote. Gizaixoa gaztetan hil zen bestela asko lagunduko ziokeen haran honi, haran hau eta herria maite baitzituen. Haran hau asko ezagutu da ere...*

2241

Léku gúzietan ánitx árdi, ári eta áxuru bèitagó eta eróstan bèiditéi Nabárra eta Arágo gúzian; báita (e)ré, ánitx lerdói eta bagadói bèitagó bére bárnian, eta egítan da ánitx zur, eta eramáitan ditéi lótetruk, almadiétan eguatxá bárna Zaragózara eta Tortósaradráino. Egítan da eré Bálle kontán ánitx gánzta eta zénbra ardíen eznéki, ánitx on, eta fámatruk daudé gúzutik, múndu gúzutik; béste gáizarik eré badagó báia (útz) útzurik álte bátra Bálleko gaizák xuánen naz órai elerráitra

Uztarrózerik, ni kánko bèináz eta bapának moitiéna bèitú bétik bére gaizák. Uztarróze dagó ídirik goréna, bèitagó Fránziaren mugán, eta da Bálleko ídirik obéna eta óbeki konsérbatan diénak gáiza eta kostúnbre zar gúziak; égunko égunion bízi dra ídi kontán bedratzuéin aríma, txíki góra béra; badú elíza bat ánitx éder eta ándi, ánitx merítotakò altáre ándia eta káliz eta kustódia dutiénak, orobát nóla béste gáiza gúziak Elizárnak. Égunko égunion dagó ápez jeína Don Robustiano Etxegarái, eta badú ogéi ta bedrátzu urte Eliza kóntan dagóla; Alkáte da Santxo Gárderen étseko burzegiá, Ulpiano Marko eta Juez Munizipal da Julian Márkoren burzegiá, Bitoriano Marko, bèitá bérbera gáiza kuék kóntatán ditiénak. Ídi kontán ízan da bétik óbro árdi eta sálido ezík bálle gúzian eta korrengátik da eré ídirik àbratséna...

*Batuaz:*

Leku guztietan ardi, ahari eta axuri asko baitago eta erosten baitituzte Nafarroa eta Arogoi osoan; baita, pinadi eta pagadi asko dagoelako bere barnean, eta egiten da zur asko, eta loturik daramatzate alamdietan ibaian barrena Zaragoza eta Tortosaraino. Haran honetan egiten da ere gazta eta gaztanbera asko ardien esneaz, oso ona, eta oso ospetsua leku guztietan, mundu osoan; beste gauzarik ere badago baina, Haraneko gauzak alde batera utzirik, Uztarrotzeri buruz hitz egingo dut orain, ni hangoa bainaz eta norberak maiteenak baititu bere gauzak. Uztarroze altuen dagoen herria da, Frantziako mugan baitago, eta da Haraneko herririk onena eta gauza eta ohitura zahar guztiak ondoen mantentzen dituen; gaur egun bederatzirehun arima bizi dira herri honetan, gutxi gora behera; badu eliza bat, oso ederra eta handia, meritu askotako altare andia eta kaliz eta kustodia dituen, anitx meritotako altare andia eta kaliz eta kustodia dutienak, hala nola Elizaren beste gauza guztiak. Gaur egun apaiz jauna Don Robustiano Etxegarai da, eta badu ogeita bederatzi urte Eliza honetan dagoela; Alkatea Santxo Garderen etxeko nagusia da, Ulpiano Marko, eta Juez Municipal Julian Markoren (etxeko) nagusia, Bitoriano Marko, gauza hauek kontatzen dituen berbera. Herri honetan beti izan da haran osoan baino ardi eta artalde gehiago eta horregatik herririk aberatsena da ere...

**2242**

Nik izagúntu dur éne tenprán ogéi ta amár mílla búru ígaririk, báia órai dagó zerbáit txikiágo; sálido koriék gúziak xuáitan dra San Migélez Erribrára eta Bardeára, eta kan egóitan dra maiàzaradráino, zéren kében égitan bèitú négian ánitx élur eta ténpra gáizto eta obénian (zomait) ilabétez ez dàizteké érkin étserik, eta korrengátik biártan **zuei** xátxi guziak néguko Erribrára, eta kan égitan déi **ertxarba** eta gúzia. Mílla eta zòrtziéin eta irurógei ta báten úrtian, agorríleko amàrgarnián ágitu zen ídi kóntan desgrázia bat ánitx ándi. Arrástri kártan xátxi zen ménditik Pascual Gòrriarén neskáto bat, eta áigalgàian xuán zen óiara eta akáitruk bèizagón lóak arrápatu zión árgia ixíkirik útzurik árka báten gáinian eta eratzárrí zénian ékusi zión sútan zagóla arká. Lótsatruk xági zen eta xuán zen berretáren ártra lóteko súaren eta ez bèizagón úrik xuán zen lásterka eguatxára, ez bèizién éurek eré xákin, báia éltu zéneko úra gúzia ixíkirik érden zién. Gúnian írago égitan ási zen báia xuán zéneko géntia, ígan zen suá sabáia, eta kan bèizagón ánitx áutz eta bélar fíte ixíki zen gúzia eta érkin zen suá ètsegáiniara; eta ólez éginik bèizagón ètsegáin kúra eta béste étsenak eré bai (xuán zen artuz ánitx indar sua etxe baterik berziara eta bi edo iror oren erre zen irurogéi eta bortz étse).

*Batuaz:*

Nik nire garaian hogeitá hamar mila buru baino gehiago ezagutu dut, baina orain zerbait gutxiago dago. Artalde guzti horiek Sam Migeletan Erriberara eta Bardeara doaz, eta han egoten dira maiatza arte, zeren hemen neguan elur asko eta eguraldi txarra egiten baitu eta gerta daiteke zenbait



hilabetez ezin irten daitezkeela etxetik, eta horregatik behartuta daude guztiak neguan Erriberara jaistera, eta han bazka eta guztia egiten dute. Mila eta zortzirehun eta hirurogei eta batgarren urtean, abuztuaren hamargarrenean, ezbehar handi bat suertatu zen herri honetan. Arratsalde hartan Pascual Gorriaren neskato bat jaitsi zen menditik, eta afalondoan ohera joan zen. Eta nekatuta zegoenez loak hartu zuen argizaria piztuta utzirik kutxa baten gainean eta esnatu zenenan ikusi zuen kutxa sutan zegoela. Izututa jaiki zen eta suila hartzera joan zen, sua itzaltzeko eta urik ez zegoenez korrika joan zen ibaira, inork jakin ez zezan, baina ura heldu zenerako dena sutan aurkitu zuen. Orduan oihu egiten hasi zen, baina jentea joan zenerako sua ganbarara igo zen, eta han ahotz eta belar asko zegoenez, berehala erre zen guztia eta sua teilatura irten zen; eta teilatu hori oholez eginik zegoenez, eta beste etxeenak ere bai, (sua indar handia hartuz joan zen etxe batetik bestera eta bi edo hiru ordutan erre ziren hirurogei eta bost etxe).

## Mendigatxaren eskutitza.

Bidankoze, 1905eko urtarrilaren 21garna.

### D. Resurrekzion Maria.

Ene jein ona: Azken kartan erran naun gisa, gidatan daud zerxkobait gore uskaratik berorren gobernioarentako.

Badaki gore uskarak irur tratamentu diola. Dra: duketza, zuketza eta yiketza. Duketza mintzatan gra zarrer eta errespetoko gente guziareki. Zuketaz mintzatan gra bapana bere adinetakoetarik as, aik eta sor berrietraino. Zuketaz manifestatan digu alkar digula amoriua, maitetarzuna eta adexkidetarzuna andiago ezik gainaratekueki. Eta yiketaz, berze guziueki.

Yiketzan berextan digu gizakia emaztekitik, letra konez "k", eta emaztekie gizakitik kontaz "n". Obeki entelega tzan isartan daud abezedarioko letra bakotxaren ele bat, llaburren eta aisenetarik, kortako isartan daud borz kasilla. Leinian dago erdarazko elia; bigarnian nola mintzatan gren duketzian; irurgarnian nola zuketzian; laugarnian nola yiketzan eta borzgarrian nola berextan den gizakia emaztekitik.

### Ekusen du

toma	ar beza	ori	to	no
dame	bida	edeizu	edeik	edein
lo que tiene	dakana	dakazuna	dakayana	idem.
te di	emon naun	emon naizun	emon naian	idem.
marcha	fan bedi	fan zte	fan adi	idem.
le quité	gentu naun	gentu nauzun	gentu naba	idem.
es chaparro	txapar da	txapar tzu	txapar duk	txapar dun
eres forzudo	indartsu da	indartsu zra	indartsu yaz	idem.
baja	xatx bedi	xatx zte	xatx adi	idem.
ahí está	kor dago	kor diozu	or diok	kor dion
era flojo	lazo zen	lazo zunion	lazo ziua	idem.
alcorzaste	llaburtu zion	llaburtu zunion	llaburtu yon	idem.
te mandé	mantu naun	manatu naizun	manatu naian	idem.
quisiera	nai noke	nai nokezu	nai nokek	nai noken
mejor es	obe da	obe tzu	obe duk	obe dun

piensa	pensa beza	pensa zazu	pensa zak	pensa zan.
he sentido	senditu dud	senditu diezt	senditu diak	senditu dian
te provoqué	tentatu naun	tentatu naizun	tentatu naian	idem.
estás ancho	zabal dago	zabal zaude	zabal yago	idem.

Barcelona, 19 Diciembre 1884

Ene tia Juana maitia  
Eugenio sin da arro onqui  
quemem gaude anisco onki  
guziac eta ori ¿nola dago?  
¿Nai dia sin cona ichasoaren  
ekustra? Anisco andi da, tia  
Juana, nai badu nic dud anisco  
deiru orrentaco vidagearen paga-  
taco eta quemenco ostatiaren  
pagataco eztu eguiten quemem  
ozic batrere chaten dugu  
quemem anisco onqui eta guero  
artan dugu iror nescaxi portre-  
taco eta gazte eta pollit.  
Ha! Cer vizia ! Tia Juana  
maitia, amar urte chiqui-  
ago bagunu!... Gorainzi  
Guzientaco eta piyo bat nescachi  
pollit erroncarico guzier X

Barcelona 19 Diciembre 1884  
ene tia Juana maitia  
Eugenio sin da arro onqui  
quemem gaude anisco onqui  
guziac eta ori ¿nola dago?  
¿maitia sin cona ichasoaren  
ekustra? anisco andi da, tia  
Juana, naibadu nic dud anisco  
deiru orren taco vidagearen paga-  
taco eta quemenco ostatiaren

Julian.

pagataco eztu eguiten quemem  
ozic batrere chatendugu  
quemem anisco onqui eta guero  
artandugu iror nescaxi portre-  
taco eta gazte eta pollit  
Ha! cer vizia! tia Juana  
maitia, amar urte chiqui-  
ago bagunu!... Gorainzi  
guzientaco eta piyo bat nescachi  
pollit erroncarico guzier  
Julian

Barzelona, 1884garneko abentiuaren 19garnian.

Ene tia Juana maitia. Eugenio xin da arro onki. Kemen gaude anixko onki guziak eta ori nola dago? Nai dia xin kona itxasoaren ekustra? Anixko andi da, tia Juana, nai badu nik dud anixko deiru orrentako, bidajearen pagatako eta kemenko ostatiaren pagatako, eztu egiten kemen ozik batrere, xaten dugu kemen anixko onki eta gero artan dugu iror nexkaxi portretako eta gazte eta pollit.

A! Zer bizia! Tia Juana maitia, amar urte txikiago bagunu!... Gorainzi guzientako eta piyko bat neskaxi pollit erronkariko guzier X.

Julian.

1. Nori oiltu dau Julianek karta?
2. Nola xin da Eugenio? Gaxki xin dia (daa)?
3. Nola daude kan anixko gaxki ala anixko onki?
4. Zeren ekustra xoan laiteke Tia Juana?
5. Zer du Julianek Tia Juanaren bidajearen pagatako?
6. Zer obro pagaten dau Julianek?
7. Bero egitan dia (dua) Barzelonan?
8. Nola xaten dei ostatiuan/ostatian onki ala gaxki?
9. Zomat neskaxi dei portretako?
10. Norentako dra Julianen gorainziak?

Ponza  
~~Urrain~~ red. 71.

Kredoa. 5      Garde.

1. Sinesten dud Tangoiko atan Aita,
2. gaira guzinet poder dienaren, zeu z
3. riaren, lurraren Kriaxale, eta Je z
4. sukristo aren Seme Gore Tein ba z.
5. kocha, zoin izan baizen konzebitruk
6. Espiritu Saintu Teinaren obrax,
7. sortu Ama Berjina ganik, pade z
8. zitu Ponzo Pilatusen potrioren
9. pean, kruzifikatu, il eta onrzi,
10. sanuchi zela Simbuetra, kantik
11. irurgarnen egunian resuzitatu
12. zela ilen artetik, igan zela zeuriz
13. tra, kan dagola saseririk bere
14. Aita Poderosoaren alteskoyeko altian,
15. kantik sine dela Juizioko egu z
16. nian ilen eta bizien zurgetra.
17. Kala sinechetan diez Espiritu
18. Saintuak, Eliza Ama Saintuak
19. tolikaren, Saintuien Komun., bekati z
20. oaren parkamentuan, aragiaren

Kredoa Gardeko uskaraz (Bonaparte)